

BERBAIZU

Euskara eta feminismoa, bidaide

Abenduaren 15ean Lorea Agirrek eta Idurre Eskisabelek *Euskara eta feminismoa bidaide* berbaldia eskainiko dute Mullerenean 19:00etan, Parek eta Berbaizuk antolatua. Berbaldiak Arrasaten orain dela bi urte hainbat mugimendu euskaltzalek eta feministek antolatutako *Izan zaitezke feminista euskaltzale izan gabe?* mahaia-inguruan du jatorria eta berbaldiak izan zuen harrera abegikorra ikusita, Lorea Agirre antropologoak eta Idurre Eskisabel EHUko irakasleak *Euskara eta feminismoa bidaide* berbaldia ondu dute, bi mugimendu hauen arteko erlazioa berbabide duena. Asmo horri jarraikiz, Deustualdeko euskara elkarteak eta elkarte feministak antolatuko dute berbaldi hau Mullerenean, Berbaizuren 25. urteurrenaren ospakizunen harira.



BERBAIZU

Musika asteburua

Abenduaren lehen asteburua musikaz beteko du Berbaizuk. Abenduaren 2an, ostirala, Physis VS Pelax kontzertua egongo da Mullerenean 20:00etan. Physis Versus Nomosek *Saudade é fatal 2* lan berria aurkeztuko du Deustuan, Pelaxekin batera, eta Donostiako bi bakarlariek formatu berezian eskainiko dute kontzertua, biek aldi berean joko dutelako bata eta bestearen kantak tartekatuz. Abenduaren 3an, larunbata, *Iparalde gauldia* antolatuko dugu ZAWPen Iparalde Zikloa bukatzeko, eta Paco kantautore baxe-nafarrak eta Begiz Begi taldea lapurtarrak euren lan berriak ekarriko dizkigute. Haiekin batera, Ipar Euskal Herriko garagardo artisaua ekarriko dugu, Hazparneko Etxeko Bob's Beer, esaterako, Iparaldeko doinuak eta zapoak dasta ditzagun. Sarrera 5€tan da. Kontzertuak 21:00etan hasiko dira eta ateak 19:30ean zabalduko dira.

<p>11</p> <p>19.00</p>	<p>GERLA HANDIA IPARRALDEAN</p> <p>ENEKO BIDE GAIN</p> <p>MULLERENEAN</p>
<p>18</p> <p>19.00</p>	<p>IPARRALDEKO DINAMIKA BEHARRIAK</p> <p>EHZ HELEP</p> <p>MULLERENEAN</p>
<p>3</p> <p>21.00</p>	<p>IPARRALDE GAULDIA</p> <p>BEGIZ BEGI</p> <p>ZAWP</p>

tartean

ELKARTASUNA

Errefuxiatuen eskubideen alde ekiteko taldea

Arangoiti, Deustu, Elorrieta, Ibarrekolanda eta San Inazioko hainbat auzokidek lantaldea sortu dute, Ongi Etorri Errefuxiatuak 5 Auzo izenekoa, inguru hurbilean eragiteko asmoz pertsona errefuxiatu eta migranteen eskubideen defentsan. Bizkaiko Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformaren baitan parte hartzen duten norbakoak dira. Bat egin dute Deustualdera, euren auzora, plataformaren informazioa, materiala eta jarduerak zabalitzeko. Lehen mobilizazio bat antolatu dute jada. Azaroaren 26an, larunbata, giza katea osatu dute San Inazioko Levante plazatik Deustuko San Pedro plazara. bizkaia.ongieterrefuxiatuak.info

SOS ERREFUXIATUAK

No al acuerdo

VE-TURQUÍA

luzo / Arangoiti, Deustu, Elorrieta, Ibarrekolanda eta San Inazio) Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformak GIZA KATEA antolatu du.

Bere Humanak organiazioa por... Ongi Etorri Errefuxiatuak 5 auzo (Arangoiti, Deustu, San Inazio, Ibarrekolanda y Elorrieta)

1/ Cuándo: azaroaren 26an (larunbata) 26 de noviembre, sábado

1/ dand: Levante Plazatik San Pedro Plazara

1/ hora: 12:30etan Plaza Levanten

Kabiren heriotzaren 25. urteurrena

Joan den urriaren 25ean, 70 bat lagun bildu ziren Jabier Goitia *Kabi-aren* heriotza gogoratzeko ekitaldian. 20 minututan Kabiren bizitza gogoratu eta oroimenaren garrantzia azpimarratu zuten ekitaldian elkartu ziren lagunek Kabi hil zen txokoa, San Inazio. "1991ko urria; Euskal Herria ez zen aske, langileak ez ziren euren bizitzaren jabe, kartzelak preso bezala beteta zeuden... Eta Kabi, eskuartean zerabilen lehegailuak eztanda egitean, hil egin zen", aipatu zuten. Deustun eta Lekeition ere burutu ziren

oroimen ekitaldiak aurreko igandean, azaroak 23. Antolatzaileen arabera, "oroimena borroka da; oroimena delako iragana eta etorkizunaren arteko zubia. Euskal Herri askearen alde egingo duten belaunaldi berriei herri honen historia eman behar diegu, zapalkuntzaren aurkako erresistentzia antolatuaren historia, alegia. Bere burura ezagutzen ez duena hutsik dagoelako, eta etsaiek hala desio arren, gu ez gaudelako odolustuta; borrokan aurrera egiteko determinazio, harrotasun eta arrazoiz lepo baino".



Txema Luzuriagaren bilduma



irudiak berbetan
DEUSTUKO KANALA



Urtea: 1951

Txema Luzuriaga

Deustuibarrako zama-makina

Aurrez aurre duzun argazkian oso ondo bereiz daiteke Deustuibarran, Plazatxoaren ondoan (egun Yolanda Gonzalez Plazatxoa), muntatu zuten zama-makina. Berezko propulsiota zuen 'gangil' motako itsasontzia hornitzen ari da zama-makina. Dragak

itsasadarretik ateratzen zuen lokatza itsaso zabalean isurtzen zuen gangil izeneko ontziak. Argazkian, Bilbo-Areeta errepede parean, aurreko urtean Kanala zabalitzeko hasitako obran lanean jardun zuen gangila ikus daiteke. Pedro Gilek utzitako argazkian.